

<https://www.ikas.eus/spip.php?article1353>



Bi arrain ero

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Olerkia - Olerkiak - Luixa Giltzu - Pazko, apirileko arraina -



Linean argitaratua data honetan: 2011(e)ko urtarrilaren 20a

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guziak

erreserbatuak

*Binbili eta Bonbolo
bi arrain ero,
udan fresko fresko,
neguan bero bero.*

*Bustian idor
idorrean busti
bakean ezkor
kexuan ezti.*

*Bi arrain ero
hortan bego!*

*Noiz dugu apirila ?
Gero, gero !
Eta lehena ?
Goaita oraino !
Badator, heldu da
gezurren botatzeko
urtero, urtero !
Luixa Giltzu 2007*